

fagorederlantaldea

POLITIKA INTEGRATUA **INGURUMENA** &  
**ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA**

2021/12



HUMANITY  
AT WORK

MONDRAGON

## O I N A R R I Z K O P O L I T I K A K

## Politika integratua Ingurumena &amp; Eraginkortasun Energetikoa

Fagor Ederlan Taldeak Garapen Iraunkorraren aldeko apustua egin du, eta horretarako funtsezko elementua da Ingurumena eta Eraginkortasun Energetikoa babestea. Horretarako, konpromiso hauek hartu ditu bere gain:

- Indarrean dagoen legeria eta borondatezko beste konpromiso batzuk errespetatzeaz gain, sistema hori ezartzea eta etengabe hobetzea ahalbidetuko duen kudeaketa-sistema bat izatea, eta, ondorioz, ingurumenaren eta energiaren jarduna hobetzen laguntzea.
- Plan Estrategikoetan eta Kudeaketa Planetan airearen eta uraren kalitatea babestera bideratutako baliabideak sartzea, bizitzarako funtsezko elementuak diren aldetik, bai eta berotegi-efektuko gasak murriztera bideratutakoak ere.
- Gure jarduerak prebentzioan ardatzea, diseinu-prozesuan eta instalazioak eta zerbitzuak eskuratzean ingurumen-baldintzak eta energia-eraginkortasuneko irizpideak kontuan hartuta,
- Prozesuen eraginkortasuna hobetzea, baliabide naturalen, energiaren eta lehengaien kontsumoa minimizatzeko.
- Lehentasunezko babes-eremu hauek ezartzea:
  - Isuri atmosferikoak: garrantzitsuenak direnak barne muga zorrotzagoekin eta berotegi-efektuko gasak murriztuz, baliabide guztiak eraginkortasunez erabiliz.
  - Hondakinak: materialen kontsumoa murrizteko eta sortutako hondakinak balioztatzekeo jarduketara ildoa ezartzea.
  - Substantzia Kimikoen kudeaketa arduratsua, bizi-ziklo osoa eta hornidura-kate osoa kontuan hartuta. Jardunbide onenak aplikatzea, bai manipulatzeko, bai biltegitratzeko eta hondakin gisa kudeatzeko.
  - Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzea
- Prestakuntza- eta informazio-programak ezartzea, Fagor Ederlan Taldeko pertsona guztiak beren gain har dezaten Ingurumena eta Energia Kudeatzeko Politika, Helburuak eta Sistema betetzeko aurreikusitako jarduerak gauzatzeko erantzukizuna.
- Bezeroekin eta hornidura-katearekin lankidetzan aritzea, gure jarduerak eta gure produktuek ingurumenean duten eragina murrizteko, eta konpromiso eta estandar energetikoetan aurrera egitea sustatzeko.